

Olanoren omenezko klasikoa

Etzi izango da, zikloturistentzat ▶ 3



Tolosa Kup festa handia futbola aitzaki, bihar

DJ-AK ▶ Futbito txapelketako jaiak egingo dute: Tolosa-Ibarra partidua, bazkaria, jokoak, DJ-ak...

GIROA ▶ «Jende guztia» animatu nahi dute «denon artean herriko giroa animatzeko» ▶ 2



Tolosa Kup futbito txapelketako kartel ikusgarria. HITZA



PABLO FEO

Gaurtik, ekitaldiz betetako Kultur Astea

LEITZA ▶ Karidadeko Benta izango da gaur; bihar, mendi ibilaldia eta piano kontzertua; eta etzi, Ehozi Lanzaileen Topaketa eta bazkaria ▶ 5



TOLOSALDEA ▶

Udalbiltza indartzeko hautetsien deialdia

Webgunea ireki dute atximenduentzat ▶ 7



LEITZAKO UDALA

LEITZA EUSKARAREKIN:
HITZAK ETA EKINTZAK!

TOLOSA KUP ▶

Futbola aitzaki, festa handia izango da bihar herrian

Tolosa Kup futbito txapelketako jai egingo dute bihar; «jende guztia» animatu nahi dute festan parte har dezan, «denon artean herriko giroa animatzeko»

LEIRE MONTES

Futbola aitzakizat hartuta, festa handia antolatu dute bihar-ko herrian: Tolosa Kup futbito txapelketako jaiak.

Futbol partidarekin hasiko da festa giroa: Tolosa eta Ibarra aurrez aurre lehiatuko dira. 11:00etan hasiko da partida, Berazubín. Ondoren, kalejira eta poteoan Alde Zaharrera abiatuko dira nahi duten guztiak, eta 14:00etan elkartuko dira Plaza Berrian, herri bazkaria egiteko. Bazkarirako txartelak salgai daude oraindik herriko tabernetan, 18 euroren truke.

«Plaza Berrian karpa handia jarriko dugu. Hori izango da gure oinarrizko kanpamentua. Bertan izango da bazkaria, eta baita arratsaldeko musika emanaldiak ere», diote Tolosa Kup-eko antolatzaileek.

Karpa horretan eta Abastosen herriko DJ-ek joko dute bazkal ostean: DJ King, DJ Iñaki, DJ Haro... Ez dira, baina, musika



lazko Tolosa Kup jaiako herri bazkaria, Abastosen. IRATXE ETXEBESTE

emanaldi bakarrak izango: 20:00etan, Donostiko Funky Kabrones taldeak joko du Plaza Berriko karpán. Eta leku berean, 22:30etik 23:00etara, bi talde handien kontzertua izango da: Iruñeko THC taldea, eta Bilboko Rudo & Friends Sound System.

«Karpán kontzertu honekin amaituko dira emanaldiak, bai-

na jaiak izango du jarraipenak goizeko ordu txikiak arte», diote. 03:00etatik 07:00etara Ferialekuan segituko du festa giroak, hainbat talderekin: Nomaklimato DJ-ak + Performance eta Sex & Zen + Bass Herri Proiekzioak.

«Gauza dezente antolatu ditugu, baina jendearen parte-hartzea da gakoa. Jende guztia

TABERNETAN ERE GIRO ▶

Herriko tabernariak ere parte hartuko dute Tolosa Kup jaiak, eta DJ-en emanaldiak antolatu dituzte arratsalderako eta gauerako. Arostegjeta kaleko tabernariak, gainera, jokoak prestatu dituzte bazkal osterako.

Elorri. Nomaklimato —DJ Juanxi eta DJ Alx—, gauean.

Mescal. DJ Arabo, arratsaldean.

Eguzki. DJ Lopi arratsaldean, eta DJ Tonino gauean.

Ieltxu. DJ-ak.

Bikutz. DJ Amaia, gauean.

Maskor. DJ Dummy eta Nubecita.

Orbela. DJ Yon Osirvo, gauean.

animatu nahi dugu festa hone-tan parte har dezan. Ea denon artean herriko giroa animatzen dugun».

GIZARTEA ▶

Zeinu hizkuntza tailerra, bihar, Beotibarren

Tolosaldea-Goierriko Gorren Elkarteak antolatu du; 16:00etan hasiko da

L. MONTES

I. Sentsibilizazio Astea eta Kongresua antolatu zuen hilabete hasieran Tolosaldea-Goierriko Gorren Elkarteak, eta ume eta gaztetxoentzat tailerra antolatu du orain. Zeinu hizkuntza tailerra da, hain zuzen ere; bihar arratsaldean egingo dute, Beotibar pilotalekuan.

16:00etan hasiko dira ekitaldiak. Ordu horretarako haurrentzako oinarrizko zeinu hizkuntza ikastaroa antolatu dute. 17:00etan, berriz, pailazoan txanda izango da: Sambhu pailazoek *Klin*, *Klan*, *Klowns* emanaldia eskainiko dute; saio horretan, zeinu hizkuntzako itzultzaileak izango dira. 18:00etan, txokolatarekin amaituko da jaiak.

Sarrera doan da eta tailerra guztientzat dago zabalik.

MUSIKA ▶

Nueva Vulcano eta R taldeak, bihar, Bonberenean,

L. MONTES

Bartzelonako Nueva Vulcano eta Andoaino R taldeek kontzertua eskainiko dute, bihar gauean Bonberenea etxean. Emanaldia 22:30ean hasiko da. 5 euro balio du sarrerak.

GAZTERIA ▶

Disko-festa gazteentzat, bihar, Udaleko Gazteria Batzordeak antolatuta

22:00etatik gauerdia bitarte iraungo du festak, Ferialekuan

L. MONTES

Udaleko Gazteria Batzordea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Gazteguneko foroarekin

batera ari da lanean, Tolosan Gazteleku bat abian jartzeko. Proiektu hori gauzatzen den bitartean, baina, eta «gaztetxo-en eta gazteen inguruko kez-

kak badaudenez», hainbat ekimen antolatu hasi da. «Gaztetxoei begira herrian dauden hutsuneak betetzea» da, besteak beste, haien helburua.

Biharko antolatu du Gazteria Batzordeak lehendabiziko ekimena: disko-festa, hain zuzen ere. 22:00etan hasiko da eta gauerdia bitarte iraungo du, Ferialekuan. Bihar bertan ere Tolosa Kup jaiak izango da herrian, eta festa horretan parte hartzen ez duten gaztetxoentzat bestelako aukera eskaini nahi dio batzordeak. Baliteke Udalak Ferialekuan alkoholik gabeko edariekin barra jartzea.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albistek, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

zorion agurrak bertan:



TXIRRINDULARITZA ▶

Olanoren omenezko klasika izango da etzi

Tolosatik aterata, bi ibilbide izango dira: 144 kilometrokoa luzeena eta 66 kilometrokoa bestea; izen-ematea zabalik da

IRATXE ETXEBESTE

Abraham Olanoren omenezko Nazioarteko VIII. Zikloturista Klasika egingo dute etzi, urteroko moduan, Tolosako Peña Olanok antolatuta. Klasikari 08:30ean emango zaio hasiera Ollarraingo (Benta Aundi) apartamentuak, eta bi ibilbide ezberdin izango dituzte partehar-

tzaileek aukeran; hornidura postuak egongo dira bi ibilbide horietan.

Ibilbide luzeena 114 kilometrokoa izango da, eta Tolosatik Tolosara itzuli beharko dute parte hartzen dutenek Alegia, Ordizia, Lazkao, Etxarri, Uharteko Arakil, Lekunberri, Leiza, Berastegi, Berrobi eta Ibarra zeharkatuta. Ibilbide laburra, or-

dea, 66 kilometrokoa izango da: Tolosatik atera, eta Alegia, Ordizia, Lazkao, Ataun, Lazkao, Ordizia, Alegia eta Altxotik pasatu ostean Tolosara bueltatuko dira txirrindulariak atzera.

Klasikan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aurretik, eta horretarako epea zabalik dago. Federatuek 10 euro ordaindu beharko dute

eta federatu gabek 15 euro. Prezio horren barruan dago RC aseguru ere.

Izen-ematea zabalik

Antolatzaileek adierazi duteenez, aurreinskripzioak postaz egin daitezke bihar baino lehen honako helbidera: Photon kirolak, Pescadores de Terranova kalea 13, bajua 20.011 Donostia. Bestela, faxez ere egin daitezke: 943 47 39 28. Edozein kasutan, Peña Olanoren kutzako kontura egindako transferentziaren ziurtagiria aurreinskripzio orrialdeari erantsi behar zaiola adierazi dute antolatzaileek: 21010152 65 0010089662.

Izena emateko beste bide bat ere jarri dute antolatzaile-



Abraham Olan. A. ELDUJAIN

ek eskura: ezaugarria jasotzerakoan, Lagun Artea elkartearen bulego iraunkorrean, bihar 16:00etatik 20:00etara eta etzi 07:00etatik 08:00etara.

ZESTA-PUNTA ▶

San Joan Txapelketako partiduak etzi

Zesta-puntako San Joan Txapelketako partiduen baitan, partiduak izango dira etzi: —Olinpiadengatik, gaur ez da batere izango—: 10:30ean Asier Alberro eta Borja Otaegi Bepiat Lopez eta Gorka Sanchezen aurka; 11:10ean Xabi Bildarratz Unai Alberroren aurka; 11:50ean Imanol Sanchez-Aritz Izagirre eta 12:30ean Joseba Zuloaga Patxi Plazaolaren kontra.

MERKATARITZA ▶

Sanjoanetako azoka berezirako izen-ematea

Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamentuak Tolosako merkataria eta Zerkasiko merkaturako saltzaileak gonbidatu nahi ditu ekainaren 19an egingo den Sanjoanetako azoka berezian parte hartzera. Interesa dutenek 943 69 74 54 telefono zenbakira deitu behar dute izena emateko maiatzaren 31 baino lehen.

AISIALDIA ▶

B.T. Show-erako sarrerak salgai Kultur Etxean

Betizu taldekoek kontzertua eskainiko dute datorren larunbatean, hilak 29, Leidor aretoan. 17:00etan hasiko da Ero Etxe elkarteak antolatuta, eta *B.T.1.0* haien lehen laneko kantuak eskainiko dituzte musikari gazteek, zuzeneko emanaldian, ikusentzuleen aurrean. Diskoa iazko salduenetakoa izan da: 10.000 ale. Sarrerak Kultur Etxean daude salgai.

ARKU-TIROA ▶

Arku-tiroko ikastaroa izango da ekainean

Tolosako Udaleko Kirol Zerbitzuak arku-tiro ikastaroa antolatuko du ekaineko: 7an, 9an, 11n, 14an, 16an eta 18an izango dira eskolak, 19:00etatik 21:00etara. Hilaren 19an praktikak izango dira, 09:00etatik 21:00etara, tiro eremuan. Abonatuak 25 eta besteek 35 euro ordaindu behar dituzte. Izena 11:00etatik 13:00etara eman behar da Ferialekuan.

GIZARTEA ▶

Ataundarren afaria izango da hilaren 28an

Tolosan bizi diren ataundarrek afarirako deia egin dute datorren ostiralerako, hilak 28. Fronton kafetegian egin dute hitzordua 21:00etarako, eta bertan izena eman nahi dutenentzat telefono zenbaki bat jarri dute antolatzaileek eskura: 943 65 29 41. Iaz egin zuten ekimena lehenengoz, eta hemeretz lagun bildu ziren. «Giro onean, ederki pasatu genuen».

MUSIKA ▶

Andreu Martinez musikariak emanaldi berezia eskainiko du gaur Frontonen

23:30ean hasiko da kitarrajole kataluniarraren kontzertua kafetegian

I. ETXEBESTE

Udal Kultur Batzordeak eta Fronton kafetegiak elkarlanean antolatzen dituzten ostiraleko kontzertuen baitan, Andreu Martinez kitarrajole kataluniarraren emanaldia izango da gaur, 23:30ean hasita. Fron-

ton kafetegian. Lehenengo diskoa kaleratu berri du musikariak urte honetan, eta debuta egin duen laneko kantuak eskainiko ditu, hain zuzen ere, gauerdiko partean. *Sanyals de vida* izeneko diskoa hamar kanturekin osatu du kataluniarrak, guztien osagarri nagusia

jazz-a izaki. K. Industria Cultural arduratzen da disko horiek editatzeaz eta banatzeaz.

Jazz doinuak funky, blues eta rock doinuekin uztartu ditu, hala ere, musikariak lehenengo diskoan. «Sustantziak eta aparatu elektrikoak» betetako ikuskizuna eskainiko duela

adierazi du Martinezek, eta gaurko emanaldia berezitatat jo du, horren harira. Marcel Botella (teklatuan), Jordi Franco (baxuan) eta Pere Foved (baterian) izango ditu taula gainean laguntzaile Andreu Martinezek. «Hirurekin nahiko konplizitate lortu dut buruan nuen proiektua betetzeko, eta, bide batez, kitarra hartuta eszenatoki gainera igotzeko nuen ametsa egia bilakatzeko».

Inprobisazioa eta jazz eta blues doinuak gustuko dituenak badu gaur nora jo. Jazz kontzertua ikusteko aukera pakegabea du Frontonen.

MENDIA ▶

Alpino Uzturre elkartearen irteera etzi egingo dute

I. ETXEBESTE

Alpino Uzturrek Izpegitik Elizondorako irteera antolatuko du etziko. 8 orduko ibilaldia izango da, eta Auza, Argañeta eta Alba gainak igoko dituzte mendizaleek. Irteera 07:00etan izango da Pablo Gorosabeletik.

TOLOSALDEKO HITZAK zozketatutako *Leidor Zinemaren* astebukaera honetan **'GIRO INESPERADO'** filma ikusteko bi sarreren irabazlea: **MIREN SARASOLA UGALDE (VILLABONA)**

IBARRA ▶ KULTURA

Hika antzerki taldeak 'Hitzak patriketan' eskainiko du gaur

17:00etan hasiko da emanaldia Kultur Etxean; haurrei zuzendutako hiru kontakizun pedagogiko egingo dituzte



Hitzak patriketan antzezizuneko aurreko saio bat. GARAZI AZKUE

DANI GIBELALDE

Hitzak patriketan haur txiki-entzako idatzitako antzezlana eskainiko du gaur Hika taldeak Kultur Etxean, 17:00etan. Iñaki Beraetxe eta Aizpea Goenaga dira aktoreak, eta Isidoro Fernandez zuzendaria. Emanaldian, Barbara Kakalardoak, Agustina oiloak eta Pepa txikiak bidaia bat proposatzen dute izenen, zenbakien eta ko-

loreen magia aurkitzeko. Hiru kontakizun pedagogiko dira, irudimenez eta umorez beteak. Lehen kontakizuna izenei buruzkoa da. Barbara kakalardo oso pertsonaia berezia da. Behin batean, izena ez doakio la batere ondo konturatzen da, bera oso kakalardo lasaia baita. Horregatik iragarki bat jartzen du egunkarian izena aldatuko dion norbait aurkitzeko. Aurkituko ote du gure Barba-

lorre egokia den inor aldaketa egin eta horrela izen berriarekin gustura bizitzeko?

Bigarrenengan, Agustina oilo gauero joaten da katuekin festan azokara. Horregatik sekula ez da garazi esnatzen eskolara joateko. Egun batean zenbakien ikasgaia galtzen du oso nekatuta zegoelako eta lo egin nahi zuelako. Ez daki erloju berrian ordua ere irakurtzen. Nahiago du Agustinak gauero azokara joaten segi eta zenbakiak ikasi gabe gelditu.

Koloreen kontakizunean, Pepa Peperen lehengusu txikia da, eta Pepe Peperen lehengusu zaharrena. Peperi margo-tzea gustatzen zaio; orduak eta orduak ematen ditu margolanak egiten. Pepari ere margo-tzea gustatzen zaio baina ez daki nola egiten den. Pepek badaki margotzen baina ez dio Pepari erakutsi nahi. Pepak konbentzitu egiten du. Pepe, sinetsita, Pepari kolore eta konbinazio guztiak erakusten saiatzen da. Pepek bere bokazioa aurkitu du: margolaria izatea.

BERROBI ▶

Herri Artekoaren itzuliko partidak gaur frontoian

Apirilaren 30ean, Herri Arteko Txapelketaren kanporaketan, joaneko hiru partidak jokatu zituzten Berrobik eta Donostiak Altzako auzoan (2-1 Donostiaren alde). Gaur 19:00etan, Berrobiko frontoian, itzulikoak jokatuko dituzte. Berrobi ordezkatuko duten pilotariak honakoak dira: Aratz Irazusta eta Ion Otamendi kadeteetan; Unai Madina eta Iraitz Ugartemendia jubentzetan; Julen Izagurre eta Iñigo Altuna nagusietan.

IBARRA ▶

Merkatariek protesta egin zuten

Azken hilabeteetan herrian ertzainak gaizki aparkatuta zeuden autoei «isunak jarri eta jarri» ari zirela salatuz, protesta egin zuten astelehenean herriko dendari, merkataria eta tabernariak. Saltoki eta tabernak itxi zituzten 12:00etatik 13:00etara, eta udaltxera joan ziren egoerarekin «ez geundela konforme adierazteko eta konponbideren bat aurkitzeko». Merkatariek aitortu dute askotan jendeak gaizki aparkatzen duela autoa, batzuek «abusatua» egiten dutela, baina «gaizki» iruditzen zaie «une baterako, erosketa bat egiteko autoa uzten duen orori isunak jartzea». Izan ere, horrek nabarmen kaltetzen ditu herriko merkataria eta dendariak. «Egunero, une baterako autoa bigarren ilaran utzi duen jendea 90 euroko multa jartzea ez zaigu batere ondo iruditzen», aipatu dute merkatariek. «Tolosan OTA jarri zutenetik batzuek Ibarran aparkatu eta Tolosara joaten dira, eta hori nabaritzen da», erantsi dute. Merkatariek astelehenean alkateari egin zioten lehenengo eskaera «ertzainak gehiago ez azaltzea» izan zen, eta orduz gerotik aste honetan, «ez dira gehiago agertu». Astelehenean, aparkalekuen afera konpontzeko proposamen desberdinak egin zituzten udaltxean, besteak beste, «erloju batzuk jartzea» baina oraindik ez dute ezer erabaki.

BERROBI ▶

Ipuin kontalaria ariko da gaur liburutegian

Nerea Herrarte ipuin kontalaria ariko da gaur Berrobiko liburutegian, 17:15etik aurrera. Galtzaundi euskara taldeak antolatuta, haurrentzat zuzendutako saioa izango da gaur arratsaldean egingo dena.

BELAUNTZA ▶

Ikus-entzunezkoa eta ipuin kontalaria gaur

Eneko Etxeberriaren *Munduari itzulia bizikletaz*. 4 urte, 35 herrialde izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko dute gaur Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Aurrez, 18:15ean, Nerea Herrarte ipuin kontalaria saioa izango da Kultur Etxean, Galtzaundi euskara taldeak antolatuta. Ondoren, merienda izango da haurrentzat. Bestalde, ekainaren 5 eta 6rako Udalak antolatutako piragua eta rafting irteeraren izen-ematea maiatzaren 28an amaituko da.

LIZARTZA ▶

Agirrebarrena estraditatzeko baimena emanda

Parisko Helegite Auzitegiak Aitor Agirrebarrena Lizartzako presoa Espainiara estraditatzeko baimena eman du. Espainiako Fiskaltzak Jose Luis Lopez de la Calle hil zuen komandoko kide izatea egotzi dio Agirrebarrenari.

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAREN LAGUNTAILEAK DIRA
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin
- Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETETAN.
Marxotik ekainera

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharpenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

BERROBIKO UDALA BANDOA

Herritar guztiei jakin arazten zaizue maiatzaren 21ean, ostirala, iluntzeko 19:30retan Herri-arteko Pelota txapelketa barne Berrobiko taldeak Donostiako aurka jokatuko dute Berrobiko Urralburu pilotalekuan.

Beraz, animatzen zaituztegu Bertara agertzea eta herritarrek animatzera.

Berrobi, 2004ko maiatzak 20
ALKATEAK

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

**Tolosaldeko herritarrentzat lanean egunez egun!
Leitzar eta aresoarrentzat lanean!**

LEITZA ▶ KULTURA

26. Kultur Astea Karidadeko Bentaren emanaldiaz hasiko da

Aurten II. Eho-ziri Lanzaleen Topaketa egingo da igande eguerdiartean, etzi, eta ondoren herri bazkaria izanen da

JAIONE ASTIBIA

Leitzako Kultur Taldeak antolatuta, Kultur Astea izango da gaurtik aurrera, hilaren amaiera arte. 26 urte jarraian jadanik, hurrengo aste luze horretan, hamar eguneko izanen baita, mota guztietako ekitaldi eta ikuskizunak daude prestatuta, gustu guztiak asetzeko intentzioz eta adin maila desberdinetako jendearen ikusmin eta zaletasunei erantzuteko prest.

Kultur Asteak bi asteburu harrapatzen ditu erdiz erdi, eta bata bezain aberatsa dago iragarrita bestea. Esate baterako, bi ostiraletan musika izanen da entzungai, baina oso estilo desberdinekoak. Gaurkoan hasiera emateko, Karidadeko Benta taldea ariko da kantari eta musika joz zinemaren, gaueko 22:30etik aurrera.

Herriko musikagileak

Hurrengo ostiralez berriz, herriko Jeiki Abesbatzak eskainiko du kontzertua iluntzeko 20:00etatik aurrera. Bere garaian Leitzan eta Euskal Herrian ez ezik, Europan zehar ere ibilitakoa da talde hau eta sariak ere jaso izan zituen. Aspaldiko urteetan isilik egon ondoren beraz, indarberrituta,



Karidadeko Bentaren kontzertuarekin hasiko da.

berri ere jendaurrean kantatzeari ekin dio eta beren herriaren eginen dute berragerpena egun horretan.

Dena den horiek ez dira musika eskaintza bakarrak. Hain zuzen ere, bihar larunbata, iluntze partean, piano kontzertua izanen baita zinemaren, Aina eta Roda leitzarria eta Silvia Sukunza eta Marian Marquez pianojoleen eskutik. Eta beste doinu mota batzuk joko dituzte bai txarangak, bai perkusio taldeak eta baita trikitilari, gaitero eta txistulariek ere. Beraz

musika mota desberdinak entzuteko aukera izanen da. Eta musikariek gabeko dantzarik ez dagoenez, *Leitzako Ingurutxo*a ikusteko eta aztertzeke ere aukera izanen da, haatik lehengo eta egungo doinu eta pausoak konparatzea eskueran izanen baita.

Nabarmentzeko da aurten II. Eho-ziri Lanzaleen Topaketa izanen dela etzi Leitzako Liñoputzu Elkartek antolatuta, Euskal Herri guztiko zaletuak bertaratuko direlarik. Eta eskulangintzak emanen dio bu-

KULTUR ASTEA ▶ EGITARAUA

MAIATZAK 21, OSTIRALA

22:30. Karidadeko Benta.

MAIATZAK 22, LARUNBATA

9:00. Mendi ibilaldia.
20:00. Piano kontzertua.

MAIATZAK 23, IGANDEA

10:00. II.Ehoziri Lanza-leen Topaketa.
12:00. Herri kirolak.
14:30. Herri bazkaria.
Ondoren txaranga.

MAIATZAK 24, ASTELEHEN.

20:00. Jon Arretxeren *7 kolore* diapositibak zinemaren.

MAIATZAK 25, ASTEARTEA

20:00. Ingurutxoari buruz mahai-ingurua Aurreran.

MAIATZAK 26, ASTEAZKENA

20:00. *Navarra, 1936. De la*

esperanza al terror hitzaldia, Aurrera elkartearen.

MAIATZAK 27, OSTEGUNA

20:00. *Txina, dragoia ernatzen delarik* diaporama.

MAIATZAK 28, OSTIRALA

15:00. Detraka animazio taldea eskolako atarian.
20:00. Jeiki Abesbatzaren kontzertua zinemaren.

MAIATZAK 29, LARUNBATA

19:00. Ingurutxo, Basauri eta Leitzako dantzarien eskutik.
21:30. Gazte-aparia Karrapean. Ondoren Mulanbo perkusio taldea.

MAIATZAK 30, IGANDEA

11:00. XXIV. Eskulangintza Erakusketa.
Egun guztian zehar herriko musikariak eta taloak salgai izango dira.

kaera ere asteari, hain zuzen ere maiatzaren 30ean XXIV Eskulangintza Erakusketa hainbat lanbidetako obrak, lanak eta tresnak ikusgai zein salgai egonen baitira.

Baina jai giroa osoa izan da ezin otordurik falta eta horretarako beta ere izanen da nahiz etziko herri bazkarian, nahiz hurrengo larunbateko herri aparian eta nola ez, talo beroak dastatzeko aukera ere izanen da bi jailetan. Eta sartutako ateratzeko dantza saioekin nahikoa ez bada, kirolari ere tartea egin eta, Mendibil mendi-taldeak nola ESAITek antolatuta dituzten mendi irteerak eta herri kiroltan parte hartzea bezelakorik ez da izanen.

Eta astean zehar berriz, egunero, gai oso anitzei buruz, nahiz diapositiba emanaldiak, nahiz hitzaldiak, nahiz mahai-inguruak daude antolatuta. Udal aretoetan, aipatu behar da, erakusketa desberdinak ireki direla, herriko jubilatuek eginiko mota guztietako eskulanekin, pintura tallerreko ikasleen koadroekin, Liñoputzu Elkarteko kideen eho-ziri lanekin eta Joxe Migel Elosegik prestatu duen *Leitza 1974-2004* Leitzako herriko etxean eta baserrien argazkiekin.

Ekitaldi franko badago gaurtik hasi eta hurrengo hamar egunetan. Aukerarik ez dagoela ezin esanena da beraz eta beroretzat gozatzea besterik ez da gelditzen.

FRANCISCO LÓPEZ
KANTARIAZ JAZZ
KANTARIAZ

gaztelu

Leitza, 2004ko Maiatzaren 21a
Tel: 948 61 07 04

Tel.: 948 61 07 08 • LEITZA

GAZTAÑAGA
taberna

Garaian garaiko janaria
Menua eta Karta

ARAKINDEGIA
JABETXIA

Tel.: 948 51 00 52 • LEITZA

LEITZA GARAJEA

Amazal, 29 • Tel.: 948 51 04 66
LEITZA
Elizaren atzealdean • Tel.: 943 68 35 42
BERASTEGI
ALFONSO EL BATALLADOR 3
Tel.: 948 27 97 02

Dia
SUPERMERKATUA

OKTABIO taberna

Industrialdea • **LEITZA**
Tel.: 948 51 07 31

SASTINEA
jate txea

Zorionak HITZA!

Tel: 948 61 07 04
ARESO

ARROPA • OPARIAK
BISUTERIA

KAPRITXO

Londabeikoa z/g
LEITZA
Tel.: 948 51 09 94

Lizama
herriko

1916. urtean sortua

Herriko plaza • LEITZA
Tel.: 948 51 02 83

Ogi egin berria

pastak, pastelak, tartak
(enkarguak hartzen dira)

Elbarren, 20 • LEITZA • 948 51 07 20

SAGASTI
JATE TXEA

Ongi etorri
HITZA Leitzaldera!

Elbarren, 98 • LEITZA
Tel.: 948 61 06 37

ETXEBE
ilecaindegia

ZORIONAK HITZA!

Elbarren auzoa • LEITZA
Tel.: 678 681 665

ASTIZ
LIBURUDENDA

prentsa
opariak
fotokopiak

Tel/Faxa: 948 51 02 62
Elbarren z/g
LEITZA

Aliprox

Elbarren, 71 • Tel.: 948 51 00 07
Elbarren, 20 • Tel.: 948 61 06 57

LEITZA

ANOETA ▶ GIZARTEA

Gaztetxeko urteurrenean, gaur izango da txupinazoa

17:00etan hasiko dira ekintzak gaur, poteoa eta kontzertuak ere izango dira herrian

G. AZKUE

Anoetako Gaztetxeak bost urte daramatza bizirik, eta hori ospatzeko, festa antolatuta aste guztian zehar. Dena dela, txupinazoa gaur botako dute Gaztetxean. 17:00etan hasiko dira gaurko ekintzak. Txupinazoaren ondoren, mural pintaketa izango da, eta giroa animatzeko txalapartariak, dultzainariak eta atabariariak izango dira.

19:00etan ekingo diote poteoari herriko trikitilariak lagun dituztela. 20:00etan, berri, sagardo dastaketa izango da gaztetxean.

Eta eguneko azken ekintza kontzertuekin amaituko da, 4 itzal eta Sufin Kaos taldeak agertuko dira Gaztetxeko taula gainean, 23:00etatik aurrera.

Baina ez da ekintza hauekin urtemugako egitaraua amaitzen; bihar, tortila lehiketa, makarroi jatea edota antzerkiak gozatzeak aukera izango dute bertaratzen diren guztiek.

ZIZURKIL ▶ KIROLA

Igandean izango da VI. Biatloia

10:00etan abiatuko dira kirolariak, bizikletan eta korrika arituko dira

GARAZI AZKUE

Igandean izango da, seigarren urtez, Zizurkilgo Biatloia. Aurriko urteetan bezala, Epergain elkartea izango da antolatzailerako bat; baina aurten, Epergainez gain, Ziotza kirol elkartea ere ibili da antolaketa lanetan.

Norgehiagoka 10:00etan hasiko da Zizurkilgo Pedro Maria Otaño plazan. Hiru taldetan banatu dituzte parte hartzaileak, batetik, zortzi eta hamabi urte bitartekoak izango dira. Hauek, bi kilometro bizikletan eta bi korrika egin beharko dituzte. Hamahiru eta hamabost urte bitartekoak, hiruna kilometro egin beharko dituzte, bizikletan eta korrika. Eta azkenik, hamasei urtetik gorakoak egongo dira, hauek, zazpi kilometro bizikletan eta bost korrika egingo dituzte.

Sariei dagokionez, gazteentan lehenengo hirurek kopa bana lortuko dute, eta parte hartzaile guztien artean sariak



lazko biatloia. U. URREAGA

zozketatuko dira. Bigarren saillekoek, 13 eta 15 urte bitartekoetan lehenengoak kopa eta 70 euro eramango ditu, bigarrenak 55 euro eta hirugarrenak 35 euro. Eta azkenik, 16 urtetik gorakoetan 100 euro eta kopa lehenengoarentzat, bigarrenarentzat 70 euro, eta, hirugarrenarentzat 55 euro banatuko dira. Sail bakoitzeko lehen neskaentzat ere kopa izango da. Izen-ematea egunean bertan hasi baino lehen egin daiteke. Ondoren hamaiketako izango da partaideentzat.

IRURA ▶ KULTURA

Ipuin kontaketa eta antzerkia Kultur Astean

18:00etan hasiko dira gaur ekintzak eta Gilkixaro taldeak 'Elevator' eskainiko du

G. AZKUE

Pasa den astean hasi zen Irurako Kultur Astea. Ekintza ugari izan dira ikusgai egun hauetan, eta jarduerak jarraitu egingo diote igandera arte.

Gaur, ipuin kontaketaekin ekingo diote egunari, 18:00etan izango da ludoteketan. Eta gauean, Gilkixaro antzerki taldearen 'Elevator' ikuskizuna ikusteko parada izango da trinketean.

Bihar, berriz, 12:00etan pilotola eskolako ikasleen arteko xare txapelketako finalak izango dira trinketean. Arratsaldean, taberna eta elkarteen arteko mus txapelketari emango diote hasiera 16:30ean, finalerdiak eta finala egongo dira ikusgai trinketeko tabernan. Jubilatuen elkartea, Gazte Alaiak elkartea, Diadeku taldea eta Trinkete tabernako taldeak sailkatu dira azken saioetarako. Aurten, gainera, sari banaketa txapelketa bukatu bezain pronto hasiko da.

Ordu berean, 16:30ean, xake partidak jokatu dituzte

te Irurako eta Anoetako haurrek eta gaztetxoek udaletxean.

18:30ean *Gaixotzea ez da txantxa* antzezlanak izango da Tanto, Pintto, Txuku eta Medikua pailazoaren eskutik.

Eta gauean, kantu afari herrikoia izango da 21:00etatik aurrera. Gazte Alaiak elkartean izango da ikuskizuna, Berriketan ikuskizuneko musikarien laguntzarekin. Afarirako txartelak jada salgai daude Amets estankotan eta Trinketean. 15 euro ordaindu beharko dituzte helduek, eta, 9 euro langabetu eta gazteek. Afarian, gainera, kantu liburuxka banatuko dute Berriketan taldeko kideek.

Eta Kultur Astea igandean amaituko da. Meza ondoren, Irurako haurren abesbatzak, eta, Villabonako Eresargi eta Eresargi txiki abesbatzek, kontzertua eskainiko dute Mikel Deunaren parrokan.

Kontzertua amaitu bezain laster, hamaiketako eskainiko dute Gazte Alaiak elkarteko kideek abeslariarentzat, elkarreko egoitzan.



Jaietako egitaraua plazara

ANOETA ▶ Anoetako jaietako egitaraua aurkeztu zuten atzo udaletxean. Fidel Azpiroz alkatea, Jesus Mari Arsuaga jaietako zinegotzia, Tere Soto teknikaria eta Dikers taldeko bi kide elkartu ziren mahaiaren bueltan. Ekainaren 5ean hasiko dira jaiak, eta, 13a arte luzatuko da lehen zatia. San Joan bezperan eta San Joan egunean ere izango da, hala ere, festa Anoetan. Dantzari txiki eguna edota umeen eguna izango dira egitarauan. J. SAIZAR



Villabona - Kultura

MUSIKA

JOSEBA TAPIA

'Agur intxorta maite'

Maiatzak 21 Ostirala • Gaueko 22:30etan
GUREA ARETOAN



Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

GIZARTEA ▶

Udalbiltza indartzeko bilera iragarri dute hainbat hautetsik

www.udalbiltzabai.net webgunean eman daiteke bilerarako atxikimendua

OLAIA ESKITXABEL

Udalbiltza berrantolatzeko urratsen beharra agertu zuten Euskal Herriko hainbat hautetsik, pasa den larunbatean, maiatzaren 15ean, Iruñean eskaini zuten prentsaurrekoan.

Udal hautetsiek Aberri Eguñean Nazio Eztatidaguneak egindako proposamenarekiko adostasuna azaldu zuten. Horretaz gain, «Udalbiltzak sorreratik duen izaera irekia lortzera begira urratsak emateko konpromisoa» agertu zuten, Olatz Amundarainek, Alegiako alkateak, zehaztu duenez. Bozeramale gisa aritu zen prentsaurrekoan.

tsaurrekoan. «Nazio mailan dagoen instituzio bakarra indartzeko beharra daukagu», dio Amundarainek.

Udalbiltzak bere sorreran, 1999ko irailean, adostu zituen oinarriak eta 2002an Euskal Herriaren Eskubideen Kartan onartzen ziren oinarriak atxikimendua agertu zieten, bestalde.

Guzti hori kontutan hartuta, Udalbiltza berrantolatzeko batzarrerako deia luzatu zuten. Data zehaztu ez bazen ere, «uda baino lehen» egingo dela azaldu du Alegiako alkateak.

Bilerarako udal hautetsien atxikimendu kanpaina jarri



Olatz Amundarainek irakurri zuen prentsaurrekoan. HITZA

zen abian astelehenean, maiatzaren 17an. Batzarrera joateko asmoa duten hautetsiek www.udalbiltzabai.net webgunean eman dezakete bilerarako atxikimendua.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Marokoar afaria, musika berbera eta dantza egiptoarrak bihar Atxulondon

Afari argentinarerako izen-ematea zabalik dago astelehena bitarte

O.ESKITXABEL

Marokoar afaria antolatuko dute biharko, *Maiatza Saltsan* egitarauaren barruan. Atxulondo tabernan izango da afaria, 22:00etan; besteak beste, cuscus-a, pastak, tea... izango dute dastagai.

Afaldu ondoren, *Bouhía* musika taldearen emanaldia izan-

go da; taldeak musika berbera eta dantza egiptoarrak eskainiko ditu.

Afari argentinarra

Datorren larunbatean, maiatzaren 29an, Argentinako platerak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek, afari argentinarra antolatuko baitute.

Zizurkil Goiko zimiteyuan izango da. Ondoren, *Tangonen* taldeak tango eta folklore argentinarra eskainiko du.

Afarira joan nahi dutenek Iriarte jatebean edota Zizurkilgo udal bulegoetan eskura ditzakete txartelak; horretarako azken eguna datorren astelehena, maiatzaren 24a, izango da. Prezioa: 24 euro.

ALEGIA ▶

Denboraldi amaierako afaria eta zahagi ardoa

Denboraldi amaierako afaria egingo dute ohi bezala Intxurre futbol taldeko jokalariek bihar. Herriko plazan izango da afaria 20:30ean eta herri-arrantzat zahagi ardoa ere izango da.

ALEGIA ▶

Edu 'Bighands' entzungai Hilario-berri tabernan

Ahots bluesero berezia duen kantaria, Edu gitarrajole eta bakarlari madrildarra, entzuteko aukera izango dute alegiarrek Hilario-berri tabernan. Doinu ugari eskainiko ditu 24:00etatik aurrera.

BIDEGOIAN ▶

Outlook-a erabiltzen ikasteko aukera

Outlook-a erabiltzeko ikastaroa izango da gaur KZgunean, 09:00etatik 11:00etara bitartean. Jarraian, 11:00etatik 13:00etara, Interneten nekazal munduaren inguruko informazioa bilatzen ikasteko aukera izango dute.

BIDEGOIAN ▶

Garaipen errazeko partidak herenegungoak

Garaipen errazeko partidak izan ziren herenegun kadetek Bidanien jokaturako HITZA txapelketako partidak. Mujika 8-Legarreta 18; Eskudero 9-Galarraga 18; Telletxea 18-Errazkin 6 eta Ojuel 18-Arre- gina 4.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39
Ibarralde. Osasun eb: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aitzondo.**
Anbulatorioa: 00 69 70

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Olarreaga, A., Korreo kalea 2 (Tolosa). 67 01 28
O. Erbiti, (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
villabona_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetalde. 687 41 00 22
anoetalde@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Taberna. Oresako taberna alokatzen da. 943 682029.
Etxebizitza. Ingeles familia batek etxebizitza bat behar du alokairuan. Abuzturako; Tolosan edo Ibarran. 943 670052/943 671275.

IRAGARKI LABURRAK ▶



Anoeta. Etxebizitza eta garajeak,

erakuntza berriak, azken aukerak.
Anoeta. 370 m²-ko 3 plabillioiak modulotan salgai, berriak.
Irura. 61 m²-ko etxebizitza, lorategiarekin, inbertsiorako bikaina.
Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua. Kanpoaldera.
Tolosa. Etxe abikia. 180m², lau gela, bainugela eta komuna. Altzariz hornitutako sukualdea.
Tolosa. Nafarroa etorbidean 140m²ko etxebizitza. Garajea aukeran.
Tolosa. Pablo Gorosabel kalean,

garaje ibxia salgai. 16m²koa.
Donostia. Rodil zeharkalean 42 m²-ko apartamentu berritua, erabat kanpoaldera.
Donostia. Elkanon kalean 2 etxebizitza salgai, eraberritzeko eraikin altuan.
Lizartza. Solairuko 130 m² dituen hiru solairuko baserri berritua.
Lizartza. Berrikuntza behar duen baserria. 21.000 m² ko lursaila.
Lizartza. 14.000 m²-ko pabiloi berriak salgai.
Itsasondo. Eraikuntza berriko

etxebizitza; duplexa eta jardina beheko solairuan.
Alegia. Berrikuntza behar duen etxebizitza salgai; hirugarren pisua, garajearekin eta trastelekuarekin hornituta.
Jatetxea Hernialden. Hernialden, beharrezko guztiarekin hornitutako jatetxea; aparkaleku zabalarekin eta sagardotegiarekin uztartu daitekeena da.
Aia. Baserria salgai, bi solairuko, bakoitza 250 m²-koa, gustu handiz berritua, 61.000 m²-ko lursailarekin

hornitua.
Belautza. 1.060 m²-ko pabiloia, erabat garbia, argitsu eta garabiarekin.
Belautza. 264 m²-ko eta 275 m²-ko pabiloi berriak salgai.
Aizarnazabal. 50.000 m²-ko lursaila salgai. Bost urteko 2.000 txakolin mahats.
Matxinbenta. Berritu beharreko lau solairuko etxebizitza.
Legorreta. 1.000 m²-ko pabiloia salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko.



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Bidegoian. Ugaztun baten nahiak antzezlan aurkeztuko du Teresa Lopez de Munain aktoreak. XXII. Emakume jardunaldien barruan kokatzen da ekitaldi hori. 15:00etan eskola zaharrean.

Ibarra. Hika taldearen *Hitzak patriketan* antzerkia izango da 17:00etan Benito Izagirre kultur etxean, haurrei zuzenduta.

Irura. Kultur Astearen barruan, ipuin kontaketa 18:00etan ludotekan eta *Elevator* antzerkia 22:30ean Trinketean Gilkixaro taldearen eskutik.

Tolosa. Yllana taldearen *Marionetas del pene* antzezlan Leidorren, 22:30etik aurrera.

DEIALDIAK

Berrobi. Nerea Herrarte ipuin kontalaria izango da 17:15ean udal liburutegian, Galtzaundik antolatuta

Belauntza. Eneko Ebeberriaren Munduari itzulia bizikiletaz 4urte, 35 herrialde ikus-entzunezko emanaldia izango da Kultur Etxean, 20:00etan.

Belauntza. Nerea Herrarte ipuin kontalaria izango da Belauntzako Kultur Etxean, 18:15etan. Ondoren, Udalak merienda antolatuta du haurrentzat.

Tolosa. Udal Musika Eskolan datorren ikastuterako aurrematrikula egiteko epea zabaldu da maiatzaren 3tik



Jubilatuaren ibilaldia

IRURA ▶ Kultur Astearen barruan, atzo jubilatuaren eguna izan zen Iruran. Arratsalde pasa egiteko ibilaldi neurtua izan zuten Anoeta eta Iruran zehar. Bost bat kilometroko ibilbidea burutu zuten parte hartu zuten 11 lagunek. Ondoren hitzaldia izan zuten. JOXEMI SAIZAR

31ra. Bulegoko ordutegia: 10:00etatik 13:00etara astelehenetik ostiralera.

Zizurkil. Perkusio ikastaroa Jum-jum senegaldar taldearen eskutik 19:00etatik 21:00ak arte Atxulondo kultur etxean, 14 urtetik aurrerako gazteentzat.

MUSIKA

Tolosa. Andreu Martinezen

emanaldia izango da entzungai, 23:30etik aurrera.

Anoeta. Gaztebearen V. urtemugaren txupinazoa 17:00etan, ondoren mural pintaketa txalapartari, dultzaina eta atabalariekin, poteoa herriko trikitilariekin 19:00etan, sagardo dastaketa 20:00etan eta 4 itzal eta Sufin Kaos taldeen kontzertua 23:00etan Gaztebearen.

KIROLAK

GAUR ▶

Futbola.

▶ Segura-Inxurre (Jubenilak, 19:00, Segura).

Areto futbola.

▶ Usabal-Buenetxea (Autonomikoa, 21:00, Eskolapioak).
▶ Alegi-Axular (2. maila, 21:45, Inaxio).
▶ Aloña Mendi-Eskolapioak (2. maila, 20:30, Zubikoa).

HITZA pilola txapelketa.

Benjaminak (Albiztur, 19:00etan).
▶ Imanol-Maiza/Artola-Encinas
▶ Salaberria-Matxinea/ Zelaia-Labaka
▶ Garin-Ansa/Arrospide-Ormazabal.
▶ Amiano-Rezola/Galarraga-Aburuza.

Herri arteko pilola txapelketa

▶ Berrobi-Donostia (Berrobi, 19:00, kadeteak, jubenilak eta nagusiak)

BIHAR ▶

Futbola.

▶ Mondragon-Tolosa. (Gorengo maila, 16:30, Arrasate).
▶ Billabona-Aretxabaleta. (Jubenilak, 17:00, Arratzain).

Areto futbola.

▶ Hegoalde-Ourense. (Emak.

Ohor. maila, 20:00, Tolosa).

▶ Ceramics Nogales-Laskorain. (1. maila nazionala B, 20:00, Tolosa).

▶ Trans. Lakunza-Cash Converters (1. maila, 18:30, Olaederra)

▶ Idiazabal-Laskorain. (Emak. kopa, 16:00, Zelaia).
▶ Altzako-Tinta Billabona. (Emak. kopa, 15:30, Bidebieta).

HITZA pilola txapelketa.

Alebinak (Alegia, 16:00etan).

▶ Arruti-Otaegi/Agirre-Manzesidor
▶ San Sebastian-Castro/Zinkunegi-Oruna.
▶ Irastorza-Sanxo/Gorotidi-Gailurralde.
▶ Las-Lopetegi/Aizpuru-Aizpuru.

Infantilak (Aduna, 16:00etan).

▶ Olaetxea-Ulangu/Pagola-Fernandez.
▶ Agirrezabala-Arakistain/Olazabal-Urruzola.
▶ Lobato-Arzelus/Garmendia-Lazkano.
▶ Erauskin-Llobregat/Lasa-Ezkurdia.

Etorkizunekoak (Beotibar, 11:00etan).

▶ Erauskin-Aranzabe/Renobales-Ebegarary.
▶ Loiarde-Apeztekoa/Zubieta-Retegi.

ETZI ▶

Areto futbola.

▶ Antiguako-Laskorain A. (1. maila, 10:00, Lasarte).

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Narao Fernandez (Leitza). Gaur 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Felicitas Elduaen (Leitza). Gaur urtetetzea. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Zuriñe Goikoetxea Saizar (Areso). Gaur 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebekoen partetik.



URTE ASKOAN

Julen Aizpurua (Irura). Gaur 10 urte. Familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Igor eta Aitor Arana Eizmendi (Tolosa). Gaur 20 urte. Egun ona pasa dezazuela. Ebekoen eta lehengusuen partetik.



URTE ASKOAN

Helene Usabiaga Irazu (Asteasu). Gaur urtebete. Zorionak izeba, osaba eta Alaiaren partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!